

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun zehatzei buruzko ikasketen gidaliburua

Ikasketa Planean adierazitakoa: Lan Harremanei lotutako diziplinak haien arteko loturak aintzat hartuta erabiltzea (7. zk.).



1. maila: 7. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Ikuspegi kritiko batetik identifikatzea eta ezagutzea lan harremanei lotutako diziplinak eta haien erlazioak (gaur egungoak eta beren prozesu historikoan izan dituztenak).

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Adierazleak	Ikaskuntza emaitzak
<ol style="list-style-type: none">1. Lan harremanei buruzko kontzeptuak ezagutzen ditu.2. Posizio ikertzaile bat ezartzen du egiazko informazioen bilaketan.3. Merkatuko lan harreman motak ezagutzen ditu.4. Sozietateetako lan harreman dibertsifikatuak ezagutzen ditu.	<ol style="list-style-type: none">1. Lan harremanei buruzko oinarrizko kontzeptuen esanahi historikoa aztertzen eta ezagutzen du.2. Jarrera kritikoa eta galdekatzailea du eskura dauden ezagutzei eta egiaren kontzeptuari buruz.3. Merkatuan erabiltzen diren lan harreman motak identifikatzen ditu, enplegatzaileak hartzen duen eredu juridikoaren arabera.4. Sozietateen eremuan sortzen diren lan harremanen berezitasunak bereizten ditu, sozietate motaren arabera: industria bazkidea, lan sozietate bateko bazkide langilea, lan elkartuko kooperatibako bazkidea.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Gizartearen eta Lan Harremanen Historia eta Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak gaitasun hau garatu eta ebaluatzen dute.

4. ZEREGINAK

- Eztataditza, gogoeta egitea eta gai akademikoari loturiko artikuluei buruzko lan praktikoak egitea (bakarka edo taldeka); eta eginiko lanak ikastalde osoaren aurrean ahoz azaltzea.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez, eta adierazle bakoitzaren pisua gutzizkoaren % 25 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasuna ebaluatzeko, testuinguru sozioekonomiko edo problema berri bat aurkezten zaie lan taldeei, ebatz dezaten; jardun gidan oinarrituta, taldeak informazio juridiko-ekonomikoa bilatzen du, hainbat iturritan, problema ebazteko; gutxienez eztabaida bat antolatzen da klasean lan talde bakoitzeko, problemaren ebazpenean adostasunera heltzeko; eta problemaren bateratze lana egiten da, eta ahozko azalpena taldeko ideien bozeramailearen bitartez.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren amaierako notaren % 1 da. Gaitasun osoaren balorazioak, beste gaitasunekin batera, irakasgaiaren amaierako notaren % 10 hartzen du.

Gizartearen eta Lan Harremanen Historia irakasgaiaren diseinua nahita egin dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

2. maila: 7. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

6. MENDERATZE MAILA

Langile taldearen plangintza sistemiko bat prestatzea, enpresa estrategian txertatua, eskuratutako teknika eta ezagutza juridiko-ekonomikoak enpresari aplikatuta.

7. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Aipatutako "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetan, gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzeko ikaskuntza emaitzak agertzen dira.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
1. Politikak, helburuak eta estrategiak definitu eta aztertzen ditu giza baliabideen arloan.	Giza baliabideen arloko politikak, helburuak eta antolakuntza planak zehazten eta aztertzen ditu, baita haien eraginak baliabide horietan ere.
2. Antolakuntzaren helburu orokorrekin koherenteak diren helburuak eta programak ezartzen ditu giza baliabideen arloan.	Antolakuntzaren helburu orokorrekin koherenteak diren helburuak eta programak ezartzen ditu era egokian giza baliabideen arloan.
3. Giza baliabideen kostua baloratzen du.	Enpresako giza baliabideen kostua baloratzen du, ikasitako metodoak erabilia.
4. Giza baliabideak kudeatzen ditu indarrean dagoen lan arautegiaren esparruan.	Planak eta programak landu eta ezartzen ditu, une eta leku egokian pertsona kopuru eta mota egokiak egongo direla ziurtatuz, antolakuntzaren beharrei erantzuteko.
5. Gai da irakasgaiarekin zerikusia duten beste gai batzuekiko lotura ezartzeko.	Kasu praktikoak landuz eta defendatuz, irakasgaia beste gai batzuekin erlazionatzen du.

8. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa, eta Enpresen Kudeaketa I.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

9. ZEREGINAK

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa


- Talde txikian lan egiteko prestatzea eta orientatzea.
- Irakasgaiarekin zerikusia duten hurbileko eta kanpoko informazioak bilatu eta iragazteko prestatzea.
- Txostenak, programazioak eta plangintzak egiteko behar den informazioa kritikoki baloratzea.
- Antolakuntzen egoera sistemikoan sakontzea.
- Txostenak egiteko prestatzea.
- Aho azalpenerako prestatzea, bai bakarka bai taldean.
- Eztabaida irekiak eta zuzenduak egitea.
- *Brainstorming*-erako eta *Role Playing* ariketetarako prestatzea.

Enpresen Kudeaketa I

- Kasu praktikoak lantzea eta defendatzea



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

10.EBALUAZIO SISTEMA

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez, eta adierazle bakoitzaren pisua honako hau da:

1. adierazlea: 0,25
2. adierazlea: 0,25
3. adierazlea: 0,25
4. adierazlea: 0,25

Gaitasunak irakasgaiaren kalifikazioan duen pisu globala 0,40 da.

Enpresen Kudeaketa I

5. adierazlea bakarrik ebaluatzen du.

Ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen da, eta pisua 0,15/3 da.


Gaitasunak irakasgaiaren kalifikazioan duen pisu globala 0,15/3 da; hots, 0,5eko balioa 10eko guztizkoan.

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

3. maila: 7. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. **MENDERATZE MAILA:** Aholkularitza juridiko-laboralari buruzko diziplinak erlazionatzea eskatzen duten egoerak kudeatzea, era gidatuan.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
1. Gai da irakasgaiko instituzio aipagarrienak identifikatzeko.	Aholkularitza eskaintzen du zuzenbidearen arlo sozialeko gatazkak konpontzeko modu posibleei buruz.
2. Gai honetan indarrean dagoen arautegia ezagutu eta interpretatzen du.	Irakasgaiari buruzko arau juridikoak zuzen determinatu eta interpretatzen ditu.
3. Gai da arautegi egokia kasu jakin batean aplikatzeko.	Arau egokiena hautatzen du.
4. Gatazka sozio-laboralak identifikatzen ditu, haien irtenbidea bideratzeko.	Zuzen bideratzen du lan arloko gatazken judizializazioa, ebazpen judizial irmo bat lortu arte.
5. Diziplinako kontzeptu garrantzitsuenak ezagutzen ditu.	Ezagutza teorikoak eta diziplina bakoitzean duten aplikazioa erlazionatzen ditu.
	Behin betiko epaiak eta epai irmoak exekutatzeke moduei buruzko informazioa ematen du.
	Ordena jurisdikzional sozialeko errekurtsoen ebazpen epaiak erabiltzen eta interpretatzen ditu.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II, Zuzenbide Prozesala eta Ikasgelako Praktiak I

4. ZEREGINAK

1. Ariketa praktikoak ebatzea, bakarka eta taldeka.
2. Irakasgaiari lotutako kasuistika zabalari buruzko jurisprudentzia aztertzea.
3. Ahozko azalpenak irakasgaiaren terminologia juridikoa egoki erabilita.
4. Doktrina judiziala eta zientifikoa bilatzea gai jakin bati buruz.

5. EBALUAZIO SISTEMA:

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II, Zuzenbide Prozesala eta Ikasgelako Praktiak I irakasgaiak ondoren azaltzen den sistema erabiltzen dute gaitasuna ebaluatzeko. Sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da eta ikasleak ebaluatzeko balio du.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II irakasgaiak, gaitasuna ebaluatzean, 4. puntuko lau zeregin motak eta 2. puntuko adierazleak erabiltzen ditu. Adierazleek ebaluazioan duten pisua: 1. % 5; 2. % 5; 3. % 5; eta 5. % 5. Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua etengabeko ebaluazioari esleitutako notaren % 20 da (kalifikazio osoaren % 20).



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Zuzenbide Prozesala irakasgaiak, gaitasuna ebaluatzean, 4. puntuko lau zeregin motak eta 2. puntuko adierazleak erabiltzen ditu. Adierazleek pisu bera dute ebaluazioan (% 20). Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua etengabeko ebaluazioari esleitutako notaren % 20 da (kalifikazio osoaren % 20).

Ikasgelako Praktika I irakasgaiak, gaitasuna ebaluatzean, 4. puntuko lau zeregin motak eta 2. puntuko adierazleak erabiltzen ditu. Adierazleek pisu bera dute ebaluazioan (% 20). Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua etengabeko ebaluazioari esleitutako notaren % 20 da (kalifikazio osoaren % 20).


Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema argitaratzen da ikasleentzat, ikasturtearen hasieran.

Mailako koordinazio taldea da graduako gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. maila 7. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1 MENDERATZE MAILA

Zeregina: Kopiatu Lan Harreman eta Giza Baliabideetako "Graduko Tituluaren gaitasun zehazten diseinua" dokumentuetatik.

11. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Aipatutako "Tituluaren gaitasun zehazten diseinua" dokumentuetan, gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren ikaskuntza emaitzak agertzen dira.

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

- 1. Ikaskuntzaren emaitzak homogeneizatzea.** Helburua da maila bakoitzaren ikaskuntza emaitzak islatzea, irakasgaien araberako taxonomia gaindituta. Zenbait kasutan, nahikoa izango da irakasgai bakoitzaren



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

ikaskuntza emaitzak gehitzea. Beste batzuetan, hobe izango da emaitzak berriro biltzea. Esate baterako, irakasgai batek "A" eta beste batek "B" aztertzen badu, ikaskuntza emaitza hau izan daiteke: "A eta B" aztertzen ditu.

2. **Ikaskuntza emaitzetarako adierazleak zehaztea.**
3. **Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak taula batean islatzea.**

12.GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK.

Zeregina: Kopiatu "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetatik.

13.ZEREGINAK

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

1. Gaitasuna ebaluatzeko zereginak zehaztea.
2. Gaitasuna modu homogeneo eta sintetikoan garatzeko lagungarriak diren irakasgai guztien zereginak islatzea.

14.EBALUAZIO SISTEMA

Gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren zeregina: bere ebaluazio sistema deskribatzea, honako hauek adierazita:

1. Irakasgaiaren izena
2. Ebaluatzen dituen adierazleak. Irakasgai bakoitzak, ebaluatzeko, oinarritzat har ditzake gidaliburu honen bigarren puntuari adierazitako adierazle guztiak edo horietako batzuk, eta beste baten bat ere gehi dezake. Mailan gaitasuna garatzen duten irakasgai guztiek 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak erabiltzen dituztela bermatu behar da.
3. Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzari emandako pisua.
4. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.
5. Komenigarritzat jotzen bada, zereginei eta ebaluazioari lotutako gainerako alderdiei buruzko informazio osagarria eman daiteke.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gidaliburua amaitzeko, graduko gaitasun zehatz guztien gidaliburuetarako komunak diren paragrafo hauek ageri dira:

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema argitaratzen da ikasleentzat, ikasturtearen hasieran.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. +,Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.